

Ilusiozko 75 urte

EZ dago argitalpen askorik 75 urte bete dituela esan dezakeenik. Eta are gutxiago mendi-aldizkarien arloan. Harrigarria da benetan esku artean duzun boletin hau, enpresa desinteresatua izanik, adin errespetagarri horretara heldu izatea. Egia esan, guztia merkantilizatzen den gaurko mundu honetan ez da betere normala mendizale-talde bat ekimen hau eragozpen guztien gainetik aurrera ateratzen tematzea, horretarako beren astiaren zati garrantzitsua dedikatu behar izaten diotelarik.

Pyrenaica, Federacion Vasca de Montaña edo, gaur egun, Euskal Mendi-Federakundearen boletin berriemailea izateko-tan jaio zen. Izenak berak erakusten du zein boladatakoa den. Pyrenaicari bere izena ezarri zitzaion Alpina eta Andina aldizkari ospetsuei aurretik egin zitzaizen bezala, baina horregatik ez dago pentsatzerik mendi-aldizkarien alorrean aitzindaria izan ez zenik.

Dudarik gabe Federakundeak duen komunikabiderik garrantzitsuena da baina, hala ere, onartu beharra dago ezen boletin berriemaile federatibo baten izaera hori, guztiz baztertu ez bada ere, bigarren maila baten geratzen dela aldizkariak hartzen dituen gai eta interesen barietatearen aurrean. Irakurleak gaur egun ere informatu daiteke Federakundearen ekintza, proiektu eta berriei buruz Pyrenaican, baina argital-

penaren gunea beti kokatzen da mendi-artikuluetan, izaera komertziala duten bestelako mendi-aldizkarietan agertzen diren bezalako mendi-artikuluak.

Hala ere, esan beharra dago ezen funtsean komertziala ez den bere izaera horrek ez diola aldizkariari gabetzen Euskal Herriko eta inguruko mendietako eremuan idazten duten sinadura ospetsuenen lankidetzat jasotzeaz. Pyrenaicaren inguruan izen handiko idazle-multzoa ibiltzeak zerikusia du mendizaletasunaren arloarekin erlazonaturik dauden foro guztietan aldizkariak lortu duen ospearekin. Era berean, aldizkarian parte hartzea bidea bihurtu da sinadura berri askorentzat, lehenik hasierako beren emari interesgarriak orrialde hauetatik ezagutarazteko eta gero mendi-literaturaren mundura pasatzeko, gidaliburuak, katalogoak, artikuluak eta abarrekoak argitaratuz argitaletxeen munduan.

Pyrenaican, autore ezagunen zein hasiberrien lanei kalitatezko kontrol arin bat aplikatzen zaie, derrigorrezkoa berau aldizkariaren ospea, gai desberdinen kalitate azalgarria eta gai horien tratamenduan zehaztasuna eta objektibotasuna mantentzeko. Prozedura honek, askotan polemikoa gertatu dena, ba du zerikusirik argitalpenaren arrakastarekin eta arrakasta hori zera da, euskal federatuen poztasuna honelako mendi-aldizkari bikaina izateaz.

75 años de ilusión

NO son muchas las publicaciones que pueden hacer gala de haber alcanzado los 75 años de existencia. Y menos aún las revistas de montaña que puedan hacerlo. Resulta llamativo que una empresa desinteresada como el boletín que ahora tienes entre tus manos, haya alcanzado esa respetable edad. Y es que no es propio de estos tiempos en que todo se va mercantilizand, el hecho de que un puñado de aficionados a la montaña se obstinen en seguir materializand esta iniciativa contra viento y marea, aportando para ello gran parte de su tiempo libre.

Pyrenaica nació con vocación de ser el boletín informativo de la Federación Vasca de Montaña, hoy Euskal Mendizale Federakundea. El propio nombre indica que es hija de su tiempo: Pyrenaica se bautizó emulando las ya prestigiosas revistas *Alpina* y *Andina*, pero no por ello deja de ser una pionera en este campo, a la sazón aún nuevo.

Sin duda es el vehiculo de comunicación más importante con que cuenta la Federación, si bien este carácter de boletín informativo federativo, sin ser abandonado, queda en un segundo plano ante la gran variedad de temas y el amplio abanico de intereses que viene a cubrir. El lector aún hoy puede informarse en su lectura de actividades, proyectos y noticias federativas, pero el núcleo de la publicación siempre se sitúa en artículos de montaña análogos a los que pue-

dan aparecer en otras revistas de montaña de carácter comercial.

No obstante, es importante señalar que su carácter esencialmente no-comercial, no le priva de recibir la colaboración de las más prestigiosas firmas del mundo de la montaña vasca y zonas aledañas. El hecho de que en torno a Pyrenaica se mueva un colectivo de articulistas de gran renombre, no es ajeno al prestigio que la revista ha adquirido merecidamente en todos los foros relacionados con nuestra actividad. Asimismo, la colaboración en la revista ha resultado de hecho una plataforma de lanzamiento para nuevas firmas que inicialmente han dado a conocer sus interesantes aportaciones desde estas páginas, para ampliar luego su actividad al mundo de la literatura de montaña desde guías, catálogos, artículos etc. en el mundo editorial.

Sea como fuere, en Pyrenaica tanto los trabajos de autores conocidos como de los noveles, se someten a un somero control de calidad que resulta imprescindible para mantener el prestigio de la revista, la calidad expositiva de los diversos temas, así como el rigor y objetividad en su tratamiento. Este procedimiento, polémico en ocasiones, no es tampoco ajeno al éxito de la publicación, que en definitiva es la satisfacción de los federados vascos por disponer de una excelente revista de montaña.

Patxi Galé